Astigarragako Udala
Idazkaritza Kontu-hartzailetza • Secretaria-Intervención
idazkaritza@astigarraga.net

# OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

**Bilera-zenbakia:** 2008IPLE0005
**Eguna:** 2008/04/24
**Ordua:** 12:00-13:35
**Tokia:** Areto nagusia

## Bertaratuak

| | |
|---|---|
| - Bixente Arrizabalaga Bengoetxea | EA |
| - Juan Joxe Uranga Mendiburu | EA |
| - Imanol Lizarralde Marín | EA |
| - Eloy Bazan Bazan | EA |
| - Zorione Etxezarraga Ortuondo | EAJ/PNV |
| - Mª Jesús Arruabarrena Izagirre | EAJ/PNV |
| - Jesús Fontal García | EAJ/PNV |
| - Carlos de la Peña Hornés | EB-B |
| - David Franco Chavale | EB-B |
| - Jose Angel Sanchez Gallardo | PSE-EE |
| - Jose Manuel Herzog de Bustos | PP |

## Idazkaria

- Xabin Olaizola Lasa

## Aztergaiak

| EGUNEKO AZTERGAIAK | Zk / Nº | ORDEN DEL DIA |
|---|---|---|
| **2008/02/28 eta 2008/04/04ko akten onarpena** | 1 | Aprobación de actas de 28/02/2008 y 4/4/2008 |
| **Emaniko dekretuen berri ematea** | 2 | Dación y cuenta de decretos emitidos |
| **Udal lur salmenta Astigarraga Lantzen SA-ri** | 3 | Venta de terreno municipal a Astigarraga Lantzen SA |
| **Arrobitxulo kalearen zenbakiak aldatzea** | 4 | Renumeración de la calle Arrobitxulo |
| **Mozioak:** | 5 | Mociones: |
| **5.1. Astigarraga Bizirik aurkeztutakoa, atez ate zabor bilketa sistema abian jartzekoari buruz** | | 5.1. presentada por Astigarraga Bizirik para implantar el método de recogida puerta a puerta |

| | | |
|---|---|---|
| **5.2 Gobernu taldeak aurkeztutakoa, Isaías Carrascok jasandako atentatuari buruz.**<br>**5.3 EAEk aurkeztutakoa, ikastolaren zabalkuntzari buruz.**<br>**5.4 EA eta EAJ taldeek aurkeztutakoa, ikastolaren zabalkuntzari buruz** | | 5.2. presentada por el equipo de gobierno en relación al atentado sufrido por Isaías Carrasco<br>5.3. de EAE relativa a la ampliación de la ikastola<br>5.4. presentada por EA y PNV en relación a la ampliación de la ikastola |
| **Galde-erreguak** | **6** | Ruegos y preguntas |

## Esan-eginak eta erabakiak

**1.- 2008/02/28 eta 2008/04/04ko akten onarpena.**

Aho batez onartu dira 2008ko otsailaren 28ko eta apirilaren 4ko aktak.

PSE-EEko zinegotziak Imanol Lizarralde zinegotziari erantzun dio. Imanol Lizarraldek 2008ko otsailaren 2ko aktan adierazi zuenez mozioa Udalerrien Espainiako Federazioak aurkeztu omen zuen, baina PSE-EE izan zen aurkeztu zuena.

**1.- Aprobación de actas de 28/02/2008 y 04/04/2008**

Se aprueban, por unanimidad, las actas anteriores de fechas 28 de febrero y 4 de abril de 2008.

El concejal del PSE-EE contesta al concejal Imanol Lizarralde que señaló en el acta de 2 de febrero de 2008, afirmó que la moción fue presentada por la Federación Española de Municipios cuando fue presentada por PSE-EE.

**2.- Egindako Dekretuen berri ematea**

Idazkariak Alkateak emaniko ebazpenen (189/08 zk.tik 403/08 zk.ra, biak barne),

Hirigintzako Zinegotzi Delegatuak (195/08 zk.tik 405/08 zk.ra, biak barne),

Hezkuntza, Euskara eta Gazteriako Zinegotzi Delegatuak (209/08 zk.tik 381/08 zk.ra, biak barne)

Etxebizitza, Ingurumena eta Garraioko Zinegotzi Delegatuak (258/08 zk.tik 386/08 zk.ra, biak barne) emanikoen berri eman du.

**2.- Dación y cuenta de Decretos emitidos.**

Se da cuenta de los Decretos de Alcaldía (nº 189/08 al nº 403/08, ambos inclusive)

Se da cuenta de los decretos del Concejal Delegado de Urbanismo (nº 195/08 al nº 405/08, ambos inclusive).

Se da cuenta de los decretos de la Concejala Delegada de Educación, Euskera y Juventud (nº 209/08 al nº 381/08, ambos inclusive).

Se da cuenta de los decretos del Concejal Delegado de Vivienda, Medio Ambiente y Transporte (nº 258/08 al nº 386/08, ambos inclusive).

Udalbatza jakinaren gainean geratu da.

El Pleno queda enterado.

**3.- Udal lur salmenta Astigarraga Lantzen Sari.**

**3.- Venta de terreno municipal a Astigarraga Lantzen SA.**

Alkateak Ogasun, Ondare eta Berrikuntzarako informazio-batzordearen 2008ko martxoaren 15eko irizpena aurkeztu du.

Al alcalde presenta el dictamen de la comisión informativa de Hacienda, Patrimonio e Innovación de fecha 15 de marzo de 2008.

**LEHENA.-**Idazkari kontu-hartzaileak lursailaren salmentari buruzko espedienteari eginiko txostena baieztatzea, eta ondorioz txostenean zehazturiko akordioak, hain zuzen jarraian jasotzen direnak onartzea.

**PRIMERO.-** Ratificar el informe emitido por el Secretario-Interventor en relación al expediente de enajenación y de acuerdo al informe precitado adoptar los acuerdos que se recogen en los apartados siguientes.

**BIGARRENA.-** Udalbatzaren irailaren 27ko erabakia (kapital-zabalkuntza egitea onartzen duena) indarrean dagoela, baina hala ere lur-azalera handiagoa eraginpean hartzen duen salmenta baten bitartez jardutea proposatzen dela kontuan hartuta, arestian aipatutako Udalbatzaren erabakia ondoriorik gabe uztea erabaki behar da.

**SEGUNDO .-** Como quiera que hasta la fecha está vigente el acuerdo plenario de fecha 27 de setiembre ( por el que se aprueba realizar la ampliación de capital )y en cambio lo que se está proponiendo es actuar a través de una venta que afecta además a mayor superficie de terreno, procede acordar dejar sin efecto el acuerdo plenario precitado.

**HIRUGARRENA.-** Astigarraga Lantzen S.A.ri udalak Zakurmendegin duen **40.308,46m2 lursaila zuzenean saltzea** Zehazki balorazioetako enpresak eginiko balorazioaren arabera, hau da 615.420,-€+98.467,20 IVA, guztira **713.887,20 €tan(Beza barne).**

**TERCERO .- Enajenar directamente los 40.308,46m2 de terreno municipal sito en Zakurmendegi** a ASTIGARRAGA LANTZEN S.A., conforme al precio determinado por la empresa de valoraciones a Zehazki, que valora en 615.420,-€+98.467,20 IVA, lo que totalizan **713.887,20 €(Iva incluido).**

**LAUGARRENA.-** Salmentaren prezioa jarraian zehazten diren epeetan kobratuko dira:

**CUARTO.-** El importe de la venta se cobrará conforme a los siguientes plazos:

| **Kobratzeko data/Fecha de cobro** | **Importes** | **Zenbatekoa/importe** |
|---|---|---|
| Eskrituratzerakoan/a la firma de escritura | Beza/Iva | 98.467,20€ |
| Sinatu eta 3 hilabeteetera/A los 3 meses de la firma | 33% | **205.140,00€** |
| Sinatu eta 6 hilabeteetara/ a los 6 meses de la firma | 33% | **205.140,00€** |
| Sinatu eta 9 hilabeteetara/ a los 9 meses de la firma | 34% | **205.140,00€** |

**BOSGARRENA.-** Osoko bilkurak alkateari behar adinako eskuduntzak ematen dizkio aipaturiko salmenta gauzatu eta eskritura dezan.

**QUINTO.-** El Pleno del Ayuntamiento faculta expresamente al Alcalde para la firma de cuantos documentos sean necesarios para formalizar y escriturar la precitada venta.

**SEIGARRENA**.- Bere garaian udal elkarteak hirugarrenei lursailak saltzen badizkie, dagokion enkantea bideratu beharko du, eta Aldundiari jakinarazi beharko dio. Era berean, hala badagokio, Foru Aldundiaren aldez aurreko baimena lortu beharko du.

**SEXTO**.- Caso de que la sociedad municipal venda terrenos a terceros requerirá tramitar la correspondiente subasta y ponerlo en conocimiento de la Diputación, y en su caso deberá proceder a la autorización previa de la Diputación Foral.

Aurkezpena egin ondoren, ordaintzeko epeei buruz alkateak adierazi duenez, lehen eta bigarren epeetan atzerapenak baldin badaude, ez dira ordainketa-atzerapenagatiko zigorrak aplikatuko.

Hecha la presentación, el alcalde señala que en relación a los plazos de pago caso de que hubiera atrasos en el primer y segundo plazo no se aplicarán penalizaciones por la demora en el pago.

PSE-EEko zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi duenez, Astigarraga Lantzen SAren salerosketa-operazio honetan udal-sozietateak berak eskatutako erosketa egiteko dirurik ez duen hainbat egoera konplexu metatu da. Adierazi duenez, sozietatearen soberakinekin (etxebizitza sozialak direla helburu) aurreikusi ziren helburuak ez dira beteko, eta operazio honekin sozietateak negozioa egin nahi duela dirudi; horregatik, ez du bozketan parte hartuko.

Interviene el concejal de PSE-EE quien señala que en esta operación de compra venta a Astigarraga Lantzen SA se han acumulado toda una serie de situaciones complejas en las que además la propia sociedad municipal no tiene dinero para formalizar la compra solicitada. Señala que los fines que se habian previsto con los excedentes en la sociedad (para destino a vivienda social) no se cumplirán y da la sensación de que con esta operación la sociedad pretende hacer negocio, razón por la que se va a abstener en la votación.

Irizpena bozkatu ondoren, aldeko 10 botorekin eta PSE-EEko zinegotziaren abstentzioarekin onartu da.

Sometida a votación el dictamen, que se ha aprobado con 10 votos a favor y la abstención del concejal del PSE-EE.

**4.- Arrobitxulo kalearen zenkabiak aldatzea**

**4.- Renumeración de la calle Arrobitxulo**

Alkateak Obra eta Zerbitzuetako informazio-batzordearen 2008ko urtarrilaren 10ko irizpena aurkeztu du.

El alcalde presenta el dictamen de la comisión informativa de Obras y Servicios de fecha 10 de enero de 2008.

Udalbatzako kideek aho batez onetsi dute irizpena, eta honako erabaki hau hartu dute:

Los miembros de la Corporación, por unanimidad, proceden a la aprobación del siguiente acuerdo:

- Lehen Arrobitxulo Bidea 41 eta 43 zenbakiak, Arrobitxulo Bidea 37-39-41-43 jartzea.

- Renumerar los números de Arrobitxulo Bidea 41 y 43 con Arrobitxulo Bidea 37-39-41-43.

**5.1.- Astigarraga Bizirik aurkeztutako mozioa, atez ateko zabor bilketa sistema abian jartzeko.**

**5.1.- Moción de Astigarraga Bizirik para implantar el método de recogida puerta a puerta.**

Alkateak hitza eman dio Urtzi Leonet jaunari, mozioa aurkeztu duena baita.
Horren ondoren, aurkeztutako mozioa irakurri da; mozioan honako akordio hauek proposatu dira:

El alcalde cede la palabra a Urtzi Leonet por ser la persona que ha presentado la moción.
A continuación da lectura a la moción presentada en la que se propone la adopción de los siguientes acuerdos:

1.- Atez ateko metodoa ezartzeko premia onartzea, eta bereziki, Astigarraga udalerriko materia organikoaren bilketa, etxeko hondakinei dagokienez nahiz HPIME izenarekin ezagutzen direnei dagokienez. Eta hau guztia San Markoseko Mankomunitatearen adostasunez.

1º.- Aprobar la conveniencia de implementar el método Puerta a Puerta y especialmente la recogida de la materia orgánica dentro del término municipal de Astigarraga, tanto para los residuos domésticos como para los RICIA, de conformidad con la Mancomunidad de San Marcos.

2.- Eskumena duten administrazio-eta politika-organoei (Eusko Legebiltzarrari) egindako berariazko eskaera, legea onartzeko, Kataluniako Autonomia Erkidegoan hondakinen esparruan dutenaren parekoa, honakoa baitio Kataluniako lege horrek: “Udalerrietako hondakinen gaikako bilketak nahitaezkoa izan behar du, hondakin organikoak biltzeko zerbitzuari gaika entregatzeari dagokionez”.

2º.- Aprobar una petición expresa a los órganos administrativos y políticos competentes (Parlamento Vasco) para la aprobación de una ley como la que existe para los residuos en la Comunidad Autónoma de Catalunya, en lo que respecta a “La recogida selectiva de los residuos municipales debe de implantarse con carácter obligatorio en lo que concierne a la entrega separada al servicio de recogida de los residuos orgánicos.

PSE-EEko zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi duenez, hemen aurkeztutako mozioa beste udal batzuetan aurkeztutakoen kopia bat da, eta gaineratu duenez, dentsitate handiko udalerrietan proposatutako plangintzak ezin dira gauzatu; era berean, gogorarazi duenez, San Markoseko zabortegia ixtea jada onartu zen eta egun oraindik zaborra botatzen da bertan, zehazki Astigarragako

Interviene el concejal del PSE-EE quien señala que la moción presentada aquí es copia de las presentadas en otros ayuntamientos y añade que en municipios de mucha densidad los planteamientos propuestos no se podrían llevar a cabo y recuerda que ya se aprobó el cierre del vertedero de San Marcos, y que actualmente todavía se está depositando basura en San Marcos, precisamente en

udalerrian kokatutako lursailetan. Hori guztia dela-eta, ez du parte hartuko.

terrenos ubicados dentro del término municipal de Astigarraga y que por todo ello se va a abstener.

Zorionek hartu du hitza, eta adierazi duenez, atez ate jasotzearen bideragarritasun-azterlan bat eskatu zitzaion San Markoseko Mankomunitateko presidenteordeari, eta hark erantzun zuen azterlan hori egin gabe zegoela.

Interviene Zorione quien señala que pidieron al vicepresidente de la Mancomunidad de San Marcos un estudio de viavilidad de la recogida puerta a puerta y que le contestó que dicho estudio no estaba realizado.

Bozketa egin ondoren, honako emaitza hau lortu da:

- Aldeko botoak: 9 (4 EA, 3 EAJ/PNV, 2 EB-B)
- Abstentzioak: 2 (1 PSE-EE, 1 PP)

**Onartu da mozioa**

Sometida a votación la moción se produce el siguiente resultado:

- A favor: …9 ( 4 EA, 3 EAJ/PNV, 2 EB-B)
- Abstención: 2 ( 1PSE-EE,1 PP)

**La moción queda aprobada.**

**5.2.- Gobernu taldeak aurkeztutako mozioa, Isaias Carrascok jasandako atentatuari buruz**

**5.2.- Moción del equipo de Gobierno relativa al atentado sufrido por Isaías Carrasco.**

Alkateak Isaias Carrascok jasandako atentatuari buruzko mozioa aurkeztu du, eta ondoko akordioak onartzea proposatu du:

1.- Edozein hiritarraren kontra atentatzen duena euskal gizarte beraren kontra atentatu egiten duela.

2.- Gizarte anitz batean bizi garela, eta beraz aukera politiko guztiak errespetagarriak direla, onartzen dutenek bakarrik izango dira onartuak joko demokratikoaren barruan.

3.- Ezin daiteke inolaz ere ametitu pertsonei eta sozial instituzioei egindako atentatu, mehatxu eta gogorkeri ekintzak. Horrengatik Astigarragako Udaletxeak biribilki salatzen du Arrasateko atentatua eta pairatzailearen familiarekin elkartasuna

El concejal Imanol Lizarralde presenta la moción del equipo de gobierno relativa al atentado sufrido por Isaías Carrasco proponiendo los siguientes acuerdos:

1.- Quien atenta contra cualquier ciudadano/a, atenta contra la propia sociedad vasca.

2.- Sólo quienes reconocen y aceptan que vivimos en una sociedad plural, respetando hasta sus últimas consecuencias todas las opciones políticas, sociales y culturales que enriquecen una sociedad como la nuestra, serán aceptados y reconocidos en el juego democrático.

3. Resulta intolerable cualquier atentado, amenaza o coacción a las personas e instituciones sociales, por lo que el Ayuntamiento de Astigarraga condena con rotundidad el atentado en Arrasate-Mondragon y se solidariza con la familia de

erakutsi nahi du.
Astigarragako Udaletxeak errepikatu egiten du “ETA gure artean soberan” dela.

la víctima.
El Ayuntamiento reitera que “ETA sobra” entre nosotros.

Esku-hartzean gaineratu duenez, mozio honen helburua zera izan da, PSE-EE eta PPren korporazioko bi zinegotzi gehitu direla adieraztea; zinegotzi horiek jende laua dira, kargu bat hartzeagatik mehatxatuak daudenak eta eskolta eraman behar dutenak, beren jardunarekin demokrazia erakusten dutela esanez.

Añade en su intervención que el objetivo de esta moción ha sido presentarla para manifestar la adhesión a los dos concejales de la corporación del PSE-EE y PP, gente sencilla que por haber cogido un cargo se les amenaza y están obligados a llevar escoltas, manifestando que ellos con su actuación encarnan la democracia.

PSE-EEko zinegotzi Jose Angel Sanchez jaunak hartu du hitza, eta mozio hau aurkeztu izana eskertzen du, bereziki Imanol Lizarralderi eskerrak emanez. Gogorarazi duenez, hilabete honetan PSE-EEren herriko etxeen aurkako atentatu gehiago gertatu dira.

Interviene el concejal del PSE-EE Jose Angel Sanchez quien agradece la presentación de esta moción, agradeciendo especialmente al concejal Imanol Lizarralde. Recuerda que en este mes se han sufrido otros atentados contra casas del pueblo.

PPko zinegotzi Jose Manuel Herzog jaunak hartu du hitza, eta babesa eskertu du eta gu baztertu gabe gurekin bizitzeko prest dauden guztiei eskerrak eman dizkie.

Interviene el concejal del PP, Jose Manuel Herzog, quien agradece esta adhesión y agradece a todas aquellas personas que están dispuestas a vivir con nosotros sin tener que segregarnos.

Azkenik, alkateak hartu du hitza eta mehatxu eta atentatu hauen eraginpeko sozialisten familia osoarekiko elkartasuna adierazi du.

Finalmente interviene el alcalde, mostrando su solidaridad en general con toda la familia socialista que se está viendo afectada por estas amenazas y atentados.

Botazioa egin ondoren, aho batez onartu da mozioa.

Sometida a votación la moción se aprueba por unanimidad.

**Onartu da mozioa.**

**La moción queda aprobada**

**5.3.- EAEk aurkeztutako ikastola handitzeari buruzko mozioa.**

**5.3.- Moción de EAE relativa a la ampliación de la ikastola**

Alkateak hartu du hitza, eraginpeko alderdiarekin bilerak egin dituela eta mozioa Ezker Abertzaleak, eta ez EAEk, sinatu duela adieraziz.

Interviene el alcalde quien señala que ha mantenido reuniones con la parte afectada y que la moción está suscrita por Ezker Abertzaleak y no por EAE.

Hitza eman dio Jotxi Urangari, mozioa aurkeztu duena baita. Arestian adierazitako

Cede la palabra a Joxi Uranga por ser quien ha presentado la moción. Interviene

bizilagunak hartu du hitza, osoko bilkura arratsaldean proposatzeko eskaerari buruzko xehetasunak emanez, eta salatu egin du, beste talde batzuk ados zeuden arren, alkateak jaramonik ez zuela egin eta osoko bilkura eguerdian mantendu duela, ohiko osoko bilkuren egunak eta orduak zehazten dituen eta normalean errespetatzen ez den bilkuraren akordioaren arabera. Mozioari buruz adierazi duenez, proposatzen diren akordioekin batera Ikastolaren garapenari buruzko historia osoa eman da, eta garai hartan alkatea Eli Laburu zela adierazi du; hortaz, Laburu andreari eman dio hitza.

el vecino precitado quien da detalles sobre la petición de que el pleno se pospusiese a la tarde, y denuncia que el alcalde a pesar de que otros grupos estuvieran de acuerdo hizo caso omiso y ha mantenido el pleno al mediodía, en virtud de un acuerdo plenario que determina las fechas y horas de los plenos ordinarios y que habitualmente no se respetan. Señala que en lo que respecta a la moción además de los acuerdos que se proponen se acompaña de toda una historia referida al desarrollo de la Ikastola y que parte tiene que ver con una época en la que Eli Laburu estuvo de Alcaldesa por lo que le cede la palabra a ella.

Eli Laburu andreak hartu du hitza, eta adierazi duenez, gai honekin puntu urrakorrena ukitzen da, hau da, haurrak, eta Astigarragako Ikastolak 92. urtetik gaur egun arte izan duen bilakaera errepasatu du, udal-korporazioek garapen horretan izan duten esku-hartzea azpimarratuz. Azaldu duenez, 1999-2003 legegintzaldian lehentasuna eman zioten Ikastolaren gaiari, eta kudeatu zituzten jardunak adierazi ditu, 14. eremuan ikastolarako lursailak erreserbatzearekin amaitu ziren jardunak, alegia. Ikastolaren egungo egoera azaldu du, gehiago atzeratu ezin dela eta konponbideak premiazkoak direla esanez.

Interviene la vecina Eli Laburu quien señala que con este tema se está tocando el punto más vulnerable que son los niños y realiza un repaso al devenir de la Ikastola de Astigarraga en sus distintas etapas desde el 92 hasta la actualidad, destacando las intervenciones de las distintas corporaciones municipales en ese desarrollo. Reseña que en la legislatura 1999-2003 dieron preferencia al tema de la Ikastola y señala las actuaciones que gestionaron y que culminaron con la reserva de terrenos para la ikastola en el Area 14. Expone la situación actual de la ikastola indicando que no se puede demorar más y que urgen soluciones.

Alkateak ikastola handitzeari buruzko mozioa aurkeztu du. Mozio horretan honako akordio hauek hartzea proposatzen da:

Finaliza dando lectura a los puntos que plantean en la moción y que se trascriben a continuación:

1.- Datorren ikasturte hasierako, irailerako, ikastolak behar beharrezko duen 9 ikasgelako eranskina amaitua eta ikasleak eskolatzeko prest egon dadin Udal honek beharrezko diren guztiak egingo ditu.

1.- Este Ayuntamiento hará todo lo posible para que el edificio anexo de 9 aulas que necesita la ikastola esté finalizado y preparado para la escolarización de los alumnos al comienzo del curso siguiente, esto es, para el mes de septiembre.

2.- 9 ikasgelako eranskina amaituta egonik ere zerbitzu ugari eraikinetik kanpo geratuko direla kontuan harturik Udal

2.- Teniendo en cuenta que a pesar de la finalización del edificio muchos servicios quedarán fuera del mismo, el

honek bere eskura dagoen guztia egingo du **Etxe Tutelatuak lehen bait lehen lekuz aldatu** eta eraikin zati horretan Ikastolak behar dituen gela eta zerbitzuak koka daitezen. Proiektuei ekiteko Udal honek ez dio Etxe Tutelatuen libratzeari itxarongo, 3. adinekoek bertan daudela ekingo die proiektuei, lekualdatzea ematen denean obrak ahalik eta azkarren has daitezen.

Ayuntamiento hará todo lo posible **para agilizar el traslado de las Casas Tuteladas** y situar en ese espacio las aulas y servicios que necesita la ikastola. El Ayuntamiento no esperará a que las casas tuteladas estén libres para acometer los proyectos; los proyectos se iniciarán con la presencia de las personas de la 3ª edad, para así poder comenzar las obras cuanto antes, una vez realizado el traslado.

3.- Kontuan harturik Eskola Mapa berrirako irizpideak argitaratzear direla eta horien arabera Astigarragako herritarrek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza Astigarragan bertan izateko eskubidea dutela, Udal honek DBHrako berariazko lur zoruaren erreserba egiteko konpromisoa hartzen du. Behar diren komenio bernegoziaketen bidez. Hala nola Hezkuntza Sailaren aurrean beharrezko izan daitezkeen gestio guztiak egiteko konpromisoa hartzen du Astigarragatarrentzako DBH-a epe motzerako errealitate bat izan dadin.

3.- Teniendo en cuenta que según los criterios utilizados para el diseño del nuevo Mapa Escolar y que están a punto de publicarse, los ciudadanos de Astigarraga tienen derecho a recibir la Enseñanza Secundaria Obligatoria en su localidad, este ayuntamiento se compromete a realizar una reserva de suelo específica para la ESO, por medio de la renegociación del convenio. De igual modo, se compromete a realizar todas las gestiones necesarias ante el Departamento de Educación, para que a corto plazo la ESO sea una realidad para todos los astigarragatarras.

Beste bizilagun batek hartu du hitza, 1999ko legegintzaldian 14. eremuan ikastolarako lursail-erreserba jaso zela eta ondorengo korporazioek indargabetu egin zutela berretsiz; gaur egun ez dago ikastola egiteko lursail erabilgarririk, Bidebietarten plan orokorraren aurreikuspenak asko luzatuko direlako. Hortaz, oso egokitzat jotzen du gai honi buruzko erreferenduma egitea.

Interviene otro vecino quien reitera que en la legislatura del 1999 se recogió en el área 14 la reserva de suelo para la Ikastola y que posteriores corporaciones la dejaron sin efecto y en la actualidad no existe terreno disponible para realizar la Ikastola, dado que las previsiones del plan general en Bidebitarte se alargarán mucho y entiende que sería muy adecuado hacer un referendum en relación con este tema.

Zorionek hartu du hitza, eta ikastolaren obrak muturreraino bizkortzeko Hezkuntza Sailean egiten ari diren kudeaketei buruzko informazioa eman du. Kudeaketa guztiei buruzko xehetasunak eman ditu; ikastolaren ordezkaritza batek berekin batera parte hartu du kudeaketa horietan, eta horri buruzko informazio guztia jaso dute beraz. Obraren izapideak bizkortzerakoan Hezkuntza Sailean aurkitutako zailtasunak aipatu ditu.

Interviene Zorione quien informa de las gestiones que se están realizando ante educación para que las obras de la Ikastola se aceleren al máximo. Da detalle de todas las gestiones realizadas en las que una representación de la ikastola ha participado con ella teniendo cumplida información al respecto. Hace mención de las dificultades observadas en el departamento de Educación a la hora de acelerar los trámites de las obras.

Jose Angel Sanchez zinegotziak hartu du hitza, eta adierazi duenez, ez da borondate oneko arazo bat, eta Eusko Jaurlaritzaren Talde Sozialistarekin harremanetan jarri da, gaiari buruzko interpelazioa egin dezan.

Interviene el concejal Jose Angel Sanchez quien señala que no es un problema de buena voluntad y señala que se ha puesto en contacto con el Grupo Socialista del Parlamento Vasco para que interpelen en relación al tema

Hainbatek hartu du hitza ondoren; behin guztiek amaitu dutenean, alkateak mozioa bozketarako jarri du, eta aurkako 4 botorekin (EA), 6 botoren abstentzioarekin (3 EAJ/PNV, 2 EB-B eta 1 PP) eta PSE-EEko zinegotziaren aldeko botoarekin baztertu egin da.

Se reiteran distintas intervenciones que una vez finalizadas, la alcaldía, procede a someter la moción a votación, siendo la misma rechazada con 4 votos en contra de ( EA) , la abstención de 6 votos por parte de EAJ/PNV 3, EB-B 2 y PP1) y el voto a favor del concejal del PSE-EE.

**Ukatu da mozioa**

**La moción queda rechazada**

Como explicación de voto Carlos de la Peña señala que se han abstenido porque quieren quitar criterio político a los Plenos.

**5.47.- EA eta EAJ-PNV talde politikoen ikastola handitzeari buruzko mozioa.**

**5.4.- Moción de EA y PNV acerca de la ampliación de la ikastola**

EAJ/PNVko zinegotzi Zorione Etxezarragak ikastola handitzeari buruz EAk eta EAJ/PNVk sinatutako mozioa aurkeztu du, eta eransten mozioa irakurtzeko aurkeztu du. Mozioa adierazpenezkoa da, eta aho batez onartu da.

La concejal de EAJ/PNV Zorione Etxezarraga presenta la moción suscrita por EA y EAJ/PNV en relación a la ampliación de la ikastola y da lectura a la moción que se adjunta y que tiene carácter de declaración y que es aprobada por unanimidad.

Astigarragako EAE-ANV taldeak Arantzazuko Ama ikastolaren historia laburra egin digu gaur eztabaidagai ekarri diguten mozioan, eta zuzenean udalari egozten diote herriko ikastolak egun duen egoeraren erantzukizuna.
Lehenik eta behin argitu behar dena da, ikastolari dagokion edozein ardura edo/eta erabaki hartzeko eskuduntza soilik Eusko Jaurlaritzaren Hezkuntza Sailarena dela eta udalok delako Sailean hartutako erabakietara egokitu beharra daukagula, bai erabakiok aplikatzerakoan bitartekari egiteko zein maila guztietan eska dakiguken elkarlanerako.
Astigarragako ikastolaren egungo egoerara etorrita, esan beharra dago udal honetako arduraduna harreman zuzenean egon dela eta dagoela prozesuaren hasieratik, Hezkuntza Ordezkaritzarekin, guraso elkartearekin eta

El grupo de ANV de Astigarraga nos ha hecho un resumen de la historia de la ikastola Arantzazuko Ama en la moción que presentan para su discusión en pleno y hacen directamente responsable al gobierno muncipal de la situación actual de la misma.
En primer lugar, debería quedar claro que compete exclusivamente al departamento de educación del gobierno vasco toda la responsabilidad y la toma de decisiones referentes a la ikastola y que los ayuntamientos nos limtamos a adaptarnos a esas decisiones tanto a la hora de mediar en la ejecución de las mismas como a la hora de colaborar en el ámbito que se nos solicite.
En segundo lugar, centrándonos en la situación actual de la ikastola, hay que decir que desde el inicio del proceso, el responsable de

ikastolako zuzendaritzarekin, eta legealdi honi dagokionez horren lekuko direla orain arte burutu diren bilerak:

- 2007/IX/7an ikastolaren handitze-lanei buruz azalpenal emateko bilera egin zen udaleko osoko bilkura aretoan guraso elkartearekin eta ikastolako zuzendaritzarekin . Ikasturtea hasi berria zen eta zenbait guraso kezkatuta zebilen beraien seme-alabak 2007/2008 ikasturtean eskolak ikastola eraikuntzatik kanpo jasoko zituztelako, hau da, moduluetan zeudelako. Bilera hartara, besteak beste Mikel Cabello etorri zen, Hezkuntza Saileko lanen arduraduna, eta esan zigunez, erdi baikor izanda ikastolako handitze-lanak irailerako amaituta egongo ziren, hain zuzen, 2008/2009 ikasturterako ikastolak 9 gela berri izango zituen. Bilera hartan, udalak konpromezua hartu zuen Hezkuntza Sailarekin harreman hestua izan eta hala gerta zedin ziurtatzeko pauso guztiak hurbiletik jarraitzeko.
- 2007/IX/28an Hezkuntza delegaritzan bilera izan genuen lanen esleipenaren argibideez eta ikastolaren etorkizunaz.
- 2007/XII/11an beste bilera bat egin genuen udal esparruan lanen esleipenaren egoeraz hitzegiteko.

educación del gobierno municipal de Astigarraga ha mantenido siempre una comunicaicón directa con la dirección de la ikastola y con la asociación de padres. Remitiéndonos a la legislatura actual, son muestra de dicha disposición:

- 7/IX/2007 se celebró una reunión con la asociación de padres y la dirección de la ikastola en el salón de plenos del ayuntamiento para informar sobre la obra de ampliación de la ikastola. El curso acababa de empezar y algunos padres se mostraban preocupados porque durante el curso 2007/2008 sus hijos e hijas iban a recibir las clases fuera del edificio de la ikastola, es decir, en módulos habilidados por Educación. A esta reunión acudió Mikel Cabello, responsable de obras de dicho departamento, y por lo que comentó, siendo medianamente optimista, la obra de ampliación de la ikastola empezaría a mediados-finales de febrero y estaría finalizada para septiembre y teniendo nueve aulas, ya no haría falta más módulos. En aquella reunión, el actual gobierno municipal se comprometió a mantener una comunicación directa con Educación y hacer un seguimiento constante al proceso de adjudicación de las obras. Se hizo referencia a la necesidad de tener enseñanza secundaria en el municipio pero el debate se pospuso a reuniones posteriores.
- 28/IX/2007 a petición del responsable de educación del ayuntamiento se celebró una reunión en la sede de la delegación de educación para recibir información de primera mano sobre el proceso que iba a seguir la adjudicación de la obra y su posterior ejecución, así como de la consolidación de la enseñanza primaria en Astigarraga y los retos de cara al futuro.
- 11/IX/2007 se celebró una reunión en el ámbito municipal para informar sobre la situación del proceso de adjudicación. Desde delegación de educación se nos transmitía tranquilidad y así se hizo saber ante la asociación de padres y dirección de la ikastola. Se propuso elevar al responsable de ejecución de la obra de ampliación algunos cambios en la obra para mejorar la funcionalidad de la nueva ala del edificio.

- 2008/III/3an lanen atzerapena ikusirik eta hezkuntzatik adierazpen ofizialik jasotzen ez genuenez, udalean bilera deitu zen ikastolako zuzendaritzari eta guraso elkarteari udalak zekien guztiaren berri emateko.

- 2008/III/17an Hezkuntza Delegaritzan presazko bilera deitu genuen, udaletik deia egin baitzitzaion hezkuntza delegatuari lanen atzerapenaren arrazoien berri modu ofizialean adierazpenak emateko. Bilera horretan esan zitzaigun, esleipen prozesua gipuzkoako delegaritzako eskumenetik kanpo zegoela eta handitze-lanen atzerapena esleipenak berekin daraman prozesu luzeari egotzi behar zitzaiola. Lanak apirilaren lehen astean hasiko zirela esan zitzaigun eta abendua baino lehen ez zirela amaituko, hortaz, irailean modulu gehiago jarri beharko direla lanak amaitu arte. Behin bederatzi gelak bukatuta daudenean, ikastolako zuzendaritzak hala eskatuta, haur hezkuntzako haurrek jangela ikastolan bertan izan dezaten aurtengo abenduan obra egingo da. 2009rako Etxe tutelatuek eraikuntza berrira aldatuko direnez egun okupatzen duten eraikinaren zatia ikastolak hartuko du. Ondorioz egun ikastola eraikuntzaik kanpo ematera behartuta dagoen hainbat zerbitzu (musika, jangela) eta era prekarioan dauden informatika gelaren eta liburutegiaren arazoa konponduko da. Hezkuntzaren konpromezua da 2010/2011 ikasturtean zehar ikastolako lehen hezkuntza erabat finkatua geratzea, hortaz herriko ikastolaren kalitatezko eskeintza bermatuta geratuko da. Bestalde, etorkizunera begira, Hezkuntza Saila eskola-mapa finkatzen ari den prozesuan gaude eta bai ikastolako zuzendaritzak bai guraso elkarteak zeinudal honen hezkuntza arduradunak eskaera egin diogu Astigarragako ikastolak DBHa eskeintzeko aukera izan dezan. Hezkuntzak eraikin berria egiteko beharko lukeen lur-erreserba egiteko konpromezu hartu du Udal honek eta baliabide guztiak jarriko ditu

- 3/III/2008 ante la falta de información por parte de delegación sobre la razón del retraso en el proceso de adjudicación se celebró una reunión en el ámbito municipal para dar cuenta de las razones del retraso que se conocían extraoficialmente y compartir la preocupación de la responsable de educación del ayuntamiento con la asociación de padres y la dirección de la ikastola, quienes mostraron su enfado ante un nuevo retraso y lo que suponía de cara a septiembre.
- 17/III/2008 se pide una reunión de urgencia para informarnos oficialmente de los motivos del retraso de la obra y sus consecuencias de cara al curso 2008/2009. En dicha reunión se nos dijo que la competencia de la adjudicación de las obras estaba fuera del ámbito de competencia de la delegación de educación de Gipuzkoa y que el retraso era debido a la complejidad del proceso de adjudicación. Se nos aseguró que las obras empezarían la primera semana de abril y que no terminarían antes de diciembre, por lo que harían falta más módulos hasta que termine la obra de ampliación. Una vez termine la obra y se tengan las nueve aulas, por petición de la dirección de la ikastola se realizará una pequeña obra en el edificio para adecuar una sala que hará de comedor de los niños/as de educación infantil. A finales del 2009 las casas tuteladas se trasladarán al nuevo edificio y la zona que ocupan actualmente pasará a disposición de la ikastola. Servicios que actualmente se dan fuera del edificio (como música y el comedor) se darán dentro de la ikastola y se solucionará definitivamente la situación precaria de la biblioteca y el aula de informática. Delegación se ha comprometido a consolidar la enseñanza primaria en Astigarraga durante el curso 2010/2011 y así quedará garantizada una enseñanza de calidad en la ikastola. De cara al futuro, estamos en el proceso de elaboración del mapa escolar y tanto la asociación de padres y dirección de la ikastola como el equipo de gobierno han hecho saber a Educación la necesidad de ofertar la enseñanza secundaria en Astigarraga. Se ha tomado el compromiso de hacer la reserva de suelo para que delegación disponga de una ubicación

Hezkuntza Sailaren eskakizunetara egokitzeko.

- 2008/IV/2an ezohizko hezkuntza batzordea deitu zen, delegaritzarekin izan berri genuen bileran esandakoaz alderdi politikoen ordezkariei azalpenak emateko, hain zuzen era, ikastolako egundo egoera eta etorkizunaz azalpenak emateko. Batzorde hartara EAE-ANVko ordezkariak bertaratu ziren eta zuzeneko informazioa jaso zuten.

Beraz hainbat adierazpen irakurtzen ditugunean, bestek beste, udalari egozten zaionean kultur etxe berriari lehentasuna eman zaiola ikastolaren kalterako, argitu behar da ezjakintasunez eta asmo txarrez egindako adierazpenak direla.

Laburbilduz, Astigarragako EAE-ANV taldeak esaten duenean udal honek ikastolari lehentasunik ematen ez diola, argi eta garbi erantzun behar diogu, diotena ez dela inola era zuzena, gure esku dagoena egin dugulako eta egiten ari garelako, guztion lehentasuna delako Astigarragak ikastola duina izan dezan eta ahalegin horretan guztion elkarlana eta konpromezua behar beharrezkoak direlako.

apropiada para construir el nuevo edificio y poner los medios necesarios a su disposición.

- 02/IV/2008 se convocó una comisión de educación extraordinaria para informar a los responsables de todos los partidos políticos de la última reunión celebrada en Delegación sobre la situación actual y futuro de la ikastola. A esta comisión acudieron también responsables de ANV y recibieron información de primera mano.

Por tanto, cuando leemos ciertas declaraciones como las que insinúan que el actual equipo de gobierno prioriza la construcción de la nueva casa de cultura en perjuicio de la ikastola, hay que decir que son declaraciones realizadas desde la ignorancia y/o con mala fe.

Para concluir, decir que cuando ANV de Astigarraga nos dice que no damos prioridad a la ikastola, les tenermos que contestar que no están en lo cierto de ninguna manera, que hemos hecho lo que estaba en nuestras manos y lo seguimos haciendo, porque es una prioridad para todos nosotros que Astigarraga ofrezca una enseñanza digna y de calidad. Creemos que es necesaria la colaboración y el compromiso de todos para conseguirlo.

Como explicación de voto Carlos de la Peña señala que se han abstenido porque quieren quitar criterio político a los Plenos.

**10.- Informazio, galdera eta erreguak**

10.1 Carlos Peña zinegotziak jakinarazi du maiatzaren 28a laneko prekarietate eta istripuen aurkako nazioarteko eguna dela.

10.2 Carlos Peña zinegotziak jakinarazi du aurten Txernobilgo elkartearen 20. urteurrena ospatuko dela.

**10.- Información, ruegos y preguntas.**

10.1 El concejal Carlos de la Peña informa que el 28 de mayo es el día internacional de contra la precariedad y los accidentes en el trabajo.

10.2 El concejal Carlos de la Peña informa que se conmemora este año el 20 aniversario de la creación de la asociación de Chernovil.

Bilera amaitutzat eman dugu 14:05 eta, eztabaidatu eta erabakitakoa jasota gera dadin, agiri hau egiten dut.

Astigarraga, 2008ko apirilaren 24an

Xabin Olaizola Lasa
Idazkari kontu-hartzailea